




EAEko ekonomiaren termometroa 107,6an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Azaroan, EAEko ekonomiaren termometroa 107,6 puntutan kokatu zen, **hazkunde sendoko eremu barruan**. Inbertsioa izan zen osagairik dinamikoena, eta kontsumo pribatuak bere sendotasunari eutsi zion. Kanpo arloakekarpen negatiboarekin jarraitu zuen, baina zertxobait hobetu zen. Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntza eta zerbitzuak nabarmendu ziren, industriaren ahultasunaren aurrean.

Enpresen konfiantza handitu egin zen

EAEko enpresen konfiantza
Indizea




Iturria: Laboral kutxa.

Laboral Kutxak egiten duen inkestaren arabera, Euskal enpresek us-te dute beren egoerak hobera egingo duela datorren urteko lehen hiruhilekoari begira. Zehazki, indizearen balioa aurreko hiruhilekoko 53,6tik oraingo 56,5era igo zen. Aurreikuspenen hobekuntza prezioetan, inbertsioan eta espero diren eskaeretan gertatu zen batez ere.



Enpresen sorrerak asko egin du gora

EAEko eratutako enpresak
Urte bakoitzeko metatua urtariletik urrira.




Iturria: AENA.

INEk argitaratu duenez, **2025eko irailera arte 3.236 enpresa berri sortu ziren Euskadin**. Horrek esan nahi du %13,9ko igoera izan dela aurreko urteko aldi berarekin alderatuta eta 2008an lorturiko maximotik (3.538) gertu geratzen da. Jarritako kapitala 176 milioi euro baino gehiagokoa izan zen

KPI %3,2an mantendu zen azaroan

Euskadiko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk berriki argitaratutako informazioaren arabera, **azaroan Euskadiko KPIaren urteko tasa %3,2an mantendu zen**. Urriko %7,3aren aldean hondar inflazioa %6,2ra jaisteak, energiaren prezioen dezelerazioaren ondorioz, azaroan azpiko inflazioa bi hamarren igo izana konpentsatu zuen (%2,7), batez ere zerbitzuen garestitzeak eraginda.